

ABALTZISKETA / Idoia Sanchez ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu bihar arratsaldean

ABALTZISKETA/AMEZKETA. DV. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Idoia Sanchez ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu bihar arratsaldean. Lehena Abaltzisketan izango da, arratsaldeko 17:00etan eta liburutegian, hain zuzen ere. Bigarren saioa, berriz, Amezketan eskainiko da, 18:15etan eta hau ere liburutegian.

Azken egunetan, Tolosaldeako hainbat herritan ibili da Idoia Sanchez ipuin kontaketan. Joan den martxoaren 22an Alkizan eta Anoetan izan zen, eta astebete geroago, Lizartzan eta Orexan izan zen ipuinak kontatzen. Esan bezala, bihar, osteguna, Idoia Sanchez Abaltzisketan eta Amezketan arituko da, eta maiatzerako baditu beste hainbat saio aurreikusita: hilaren 3an Orendainen eta Baliarrainen izango da ipuin kontalaria, eta maiatzaren 24an, berriz, Bidegoian eta Albizturren eskainiko du bere saioa.